



TOKIKO PRODUKTU BEREIZIARI LAGUNTZEKO ON EGIN BONOAK KONTSUMORAKO BONUEN PROGRAMAREN OINARRI ARAUTZAILEAK ALDATZEKO GEHIGARRIA.

"Euskadiko tokiko produktu bereiziaren kontsumoari laguntzeko ON EGIN Bonoa" programak (aurrerantzean, «Programa») Aatxikitako turismo-ostatueta gauetan truka daitezkeen deskontu-bonuen kanpaina bat da, eta aipatutako bonuak 2021eko apirilaren 19tik abenduaren 31ra bitartean eskatzeko aukera ezartzen du bere oinarri arautzaileetan.

Ikusirik 2021eko abenduaren 3an Bonuen eskaerak ez direla iristen aurrekontuko erabilgarritasunaren arabera esleitu daitezkeen bonuen % 10era, eta ikusirik programaren xedea dela kalitate bereiziko tokiko produktuaren kontsumoa sustatzea eta baita landa-eremuari laguntzea ere –COVID-19aren ondorio negatiboak minimizatzeko bultzatutako neurri guztien esparruan, –, oraindik ere beharrezkoa ikusten da pandemiaren gorakada nabarmena den egungo egoeran herritarrek bonuak eskatzeko epea luzatzea, bai eta bonua lortzeko eskubidea ematen duten produktuak saltzeko guneen tipologia ere, onartutako oinarrietan ezarritakoak baino salmenta-azalera handiagoak dituzten txikizkako saltokiei sarrera emanez.

Hori dela eta, tokiko produktu bereiziari laguntzeko, ON EGIN BONOAK KONTSUMORAKO BONUEN PROGRAMAREN OINARRIA ARAUTZEN DUTEN OINARRIETAKO atal hauek aldatzen dira:

Lehenengoa.- 5. puntuaren lehenengo atala aldatzen da; AIPATUTAKO PRODUKTUAK SALTZEN DITUZTEN (SALTOKIAK) ENTITATEEK PARTE HARTZEKO BALDINTZEI dagokiena, modu honetan:

Hau dioen lekuan:

“Salmenta-puntu mota hauek atxiki ahal izango zaizkio PROGRAMARI:

- Euskadiko txikizkako saltokiak (merkataritza establezimendu komertzial, individual edo kolektibo handi gisa finkatuak ez direnak, 7/2008 Legean, 1.2. art., < 700m²)
- Euskadiko merkataritza elektronikoko atariak (EAEn emandako IFK dutenak)
- Euskadiko lehen sektoreko ekoizleen zuzeneko salmenta-puntuak (RGSA edo

REGA bidez edo botilaratzailearen erregistro bidez).

Programari atxikitzeke interesa duten saltokiak Programaren webgunean erregistratu beharko dira, horretarako eskatzen diren datuak sartuta edo emanda. Datu horiek HAZIk tratatuko ditu, oinarri arautzaile hauetako 9.2 klausulan aurreikusitakoaren arabera.”

Hau esan behar du:

“Salmenta-puntu mota hauek atxiki ahal izango zaizkio PROGRAMARI:

- Euskadiko txikizkako saltokiak
- Euskadiko merkataritza elektronikoko atariak (EAEn emandako IFK dutenak)ç

Euskadiko lehen sektoreko ekoizleen zuzeneko salmenta-puntuak (RGSA edo REGA bidez edo botilaratzailearen erregistro bidez).

Programari atxikitzeke interesa duten saltokiak Programaren webgunean erregistratu beharko dira, horretarako eskatzen diren datuak sartuta edo emanda. Salbuespen gisa, 7/2008 Legearen arabera merkataritza-establezimendu handi gisa definitutako txikizkako saltokiek, banaka edo taldeka, idatzizko eskaera bat egingo diote Hazi Fundazioari, hura osatzen duten establezimendua edo establezimenduen multzoa onartzeko eskatuz. Datu horiek HAZIk tratatuko ditu, oinarri arautzaileen 9.2 klausulan aurreikusitakoari jarraiki.

Bigarrena.- Aldatu egiten da 7. apartatua, ESKAERETARAKO IRAUPENA ETA EPEEI buruzkoa, eta honela idatzita geratzen da:

Honela dio:

«On Egin BONOIA» programa 2021eko lehen hiruhilekoan hasiko da, eta 2022ko abendura arte iraungo du. Hala ere, bonuen jaulkipena kreditua egotearen baldintzapean dago, eta eskuratze- eta erabiltze-aukerei buruzko honako adierazpen hauek ditu:

- 2021eko martxoaren 22a: saltokiek eta hotel-establezimenduek programari atxikitzeke epea hasi zen.
- 2021eko apirilaren 19a: egun horretatik aurrera egiten diren erosketak sustapenean sartuko dira.
- 2021eko maiatzaren 22a: saltokiak eta ostatuak atxikitzeke epea amaitu da.
- 2021eko ekainaren 1a: bonuak hartzeko epea hasi da.
- 2021eko abenduaren 31: amaitu da bonuak lortzeko epea.

- 2022ko abenduaren 31: bonuak gozatzeko epea amaitu da.

Hau esan behar du:

«Onegi BONOA» programa 2021eko lehen hiruhilekoan hasiko da, eta 2022ko abendura arte iraungo du. Hala ere, bonuen jaulkipena kreditua egotearen baldintzapean dago, eta eskuratzeko eta erabiltzeko aukerei buruzko honako adierazpen hauek ditu:

- 2021eko martxoaren 22a: saltokiek eta hotel-establezimenduek programari atxikitze epea hasi zen.

- 2021eko apirilaren 19a: egun horretatik aurrera egiten diren erosketak sustapenean sartuko dira.

- 2021eko maiatzaren 22a: saltokiak eta ostatuak atxikitze epea amaitu da.

- 2021eko ekainaren 1a: bonuak hartzeko epea hasi da.

- 2022ko apirilaren 31: bonuak lortzeko epea amaitu da.

- 2022ko abenduaren 31: bonuak gozatzeko epea amaitu da.

Arkautin 2021eko abenduaren 3an